

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Nolakoa da infernua?



Jeronimo Bosch (1450-1516) margolari flandriarrak XVI. mendearen lehen urteetan infernuaren ikuspegi pertsonala irudikatu zuen *Atsedenen lorategia* triptikoan.

EUROPA, XVI. MENDEA. Erreforma protestanteak aldaketa sakonak eragin zituen kristautasunean. Baina europarrek infernuaz zuten ideia aldatu al zuen? Warwickeko (Ingalaterra) Unibertsitateko katedradun Peter Marshall ek galdera horri erantzun dio *Journal of Ecclesiastical History* aldizkarian argitaratu duen ikerlanean.

Marshallen arabera, lehen begi kolpean teologo katolikoek eta protestanteek betiereko zigorrak

antzeko kontzeptua zuten. Izan ere, lehen protestanteek ez zuten gaia sakonean eztabaidatu eta sarri katolikoek deskribapenak erabili zituzten. Esaterako, “luxua eta plazera maite dutenak alkaterna beroz eta sufre kirasdunetz bustiko dituzte eta bekaiztiak zakurrak bailiran garrasika ariko dira oinazearen oinazez” testua batzuek zein besteek erabili zuten.

Erreformazaleek purgatorioa ezabatu zuten, infernua zen zigor bakarra eta, horregatik, ezinbestekoa zen fededunek abernuaren izugarrikeriak presente izatea. Hala, Arthur Dent protestanteak 1608an esan zuenez, munduko aritmetikari guztiek bizitza osoa pentsa zitzaketen zenbaki luzeenak idatzi eta zenbaki guztiak batuta ere, emaitza oso urrun legoke “bekatariek tormentuak pairatzen eman behar duten denboratik”.

Baina ñabardurak ere sortu ziren bi korronteen artean. Katolikoentzat infernuko sugarrak benetakoak ziren, fisikoak. Protestanteek, aldiz, alegoriatzat zuten su eternala. Thomas Tuken arabera, “sua benetakoa balitz, benetako erregaia beharko luke eta erregaia agortzean, sua ere itzaliko litzateke”. Infernuaren kokapen geografikoari dagokionez ere, ez zetozen guztiz bat katolikoekin. Azken horientzat infernua luraren erdigunean zegoen. XVI. mendean Alejo Venegas apaiz espainiarrak zehatz kalkulatu zuen lurrazalaren eta infernuaren arteko distantzia: 1.193 legoa. Eskriturretan ez zen puntu horri buruzko informazio zehatzik ematen eta, hortaz, protestanteek uko egin zioten kokapen fisiko jakin bat proposatzeari.


Beraz, Marshallen esanetan, protestanteek zalantza handiagoz jorratu zuten gaia eta horrek ere eragina izan zuen pentsamendu erlijiosoan infernuak izan zuen gainbeheran.

Arrastoak

Antzinako Egiptoko altxor agorrezina

SHENDWAS ETA KHONSUREN HILOBIA, polikromia biziz apaindutako eraikina (argazkian) induskatu berri dute Saqqara inguruan, Yiser al-Mudir hilerrian. Nekropoli horretan industen duten lehen hilobia da V. dinastiako hau. Horrez gain, Saqqaran bertan Petah Mis generalaren hilobia ere aur-

kitu dute, XIX. dinastiakoa. Al Fayumeko oasian, berriz, 57 hilobi topatu dituzte eta horietako askoren barruan, zurezko sarkofagoak eta momiak. Etengabeko aurrikuntzek, mendetako arpilatzearen eta indusketen ondoren, basamortuak oraindik altxor izugarria gordetzen duela erakusten dute.



WWW.DAILYCALLER.COM